

Aste Santuetako irteera Gaztelekuarekin (2009koentzat)

Kaixo, guraso:

Aste Santuetako oporretarako irteera bat antolatu du Mutrikuko Gaztelekuak. Bi gau pasatuko ditugu Gipuzkoako Gazteria sailak kudeatzen dituen aterpetxeetan. Hona hemen informazio orokorra, gutxi gorabeherako ordutegiekin:

Ekintzaren informazio orokorra

- Apirilak 9, igandea
 - 10:00 → Zabel Plazan elkartu. Ondoren, oinez Debara.
Hamaiketako jan eta trenera.
 - 12:30 → **Orioko Txurruka aterpetxean** instalatuko gara.
 - 13:30 → Bazkaldu (bakoitzak bere bazkaria).
 - 20:30 → Afaldu (aterpetxeko afaria).
 - 22:30 → Gaubela. Ondoren, lotara.
- Apirilak 10, astelehena
 - 09:00 → Gosaldu (aterpetxeko gosaria).
 - 10:00 → Motxilak hartu eta oinez Zarautzera joan.
 - 11:30 → **Zarauzko Igerain aterpetxean** instalatuko gara.
 - 13:30 → Bazkaldu (aterpetxeko bazkaria).
 - 20:30 → Afaldu (aterpetxeko afaria).
 - 22:30 → Gaubela. Ondoren, lotara.
- Apirilak 11, asteartea
 - 09:00 → Gosaldu (aterpetxeko gosaria).
 - 10:00 → Motxilak hartu eta tren geltokirantz joan.
Deban, autobus publikoa hartu.
 - 11:00 → ekintzaren amaiera Mutrikun.

Eraman beharrekoak:

- Lehenengo eguneko hamaiketako eta bazkaria.
- MUGI txartela kargatuta (aukeran, hobeto); edo autobus eta trenerako dirua.
- Higiene pertsonalerako: toalla, xaboa, txankletak, hortzetako eskuila eta pasta.
- Bi egunerako arropa eroso eta botaila/kantinplora bat.

Oharra: ez da lo-zakurik ekarri behar, aterpetxeetan izarak baitaude. Bestalde, **motxila ekartzea gomendatzen dugu**, eta EZ maleta, sarri oinez ibiliko baikara.

Ekintzan parte hartzeko bete beharreko baimenak:

Parte hartzeko baimena

Nik, -k, NAN zenbakidunak, nire erantzukizunpena adierazten dut, nire seme/alaba den
..... -k parte har dezan Mutrikuko Lapatzoko Gaztelekuak 2022-2023 ikasturtean antolatu duen Aste Santuko irteeran parte hartzeko, apirilaren 9, 10 eta 11 bitartean burutuko dena.

Konpromiso-baimena

Ohar hau sinatzearekin batera, onartzen dut zehatz-mehatz irakurri dudala erakunde antolatzaileak emandako informazio guztia, eta parte-hartzeko baldintzak onartzen ditut. Nire seme/alabak badaki uneoro kasu egingo diela monitoreen jarraibideei eta aholkuei. Nire seme/alabak unereren batean arauak betetzen ez baditu edo portaera desegokia badu, berak egindako kalte-galeren erantzule egingo naiz, eta monitoreek adierazitako orduan eta lekuan bere bila etortzeko erantzukizuna hartzen dut.

Argazkietan azaltzeko baimena

Lapatzoko Gaztelekuko irteeran ateratzen diren irudietan nire seme/alaba agertzen bada, baimena ematen dut argazki horiek elkarteak eginiko publikaziotan erabiltzeko edo herri mailan egin daitezkeen erakusketetan jartzeko (Otsailak 18ko 3/2005 Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legearen arabera).

Borobildu: BAI / EZ

Sinadura:

Gurasoaren / tutorearen telefono-zenbakia(k):

Zerbait adierazteko (alergiak, gaixotasunak, beldurrak...):

.....

Izena emateko epea: apirilaren 17, 18, 19 edo 24, 25, 26 Gaztelekuan.

Ordaindu beharrekoa: 45€. Bi aukera:

- Baimen-orria beteta ekartzean, eskuz eman Gaztelekuan.
- Egin transferentzia ondorengo kontu korrontera, eta ekarri ordainketa-agiriaren kopia Gaztelekura baimen-orriarekin batera:

IBAN-a: ES88 3035 0188 97 1880020931

Kontzeptua: seme/alabaren izen-abizenak

Lapazorri Aisialdi Elkarte